

JAKINGARRIAK

«JAKINGARRIAK» ZER DA?

«JAKINGARRIAK» Eskoriatzako Irakasle Eskolan kokatuta dagoen Dokumentazio-Zentruko informazio-tresna da: bai Dokumentazio-Zentruak jasoten eta egiten dituen materialen berri emateko tresna eta bai informazio bibliografikoa emateko ere.

D. Zentruak, Eskolaren berrikuntza eta eskolaren euskalduntze prozesuan, lagungarriak izan daitezkeen materialak eskaini nahi ditu; horregatik, sortu eta bildu diren baliabideak erizpide batzuen arabera izan dira aukeratuak:

- Irakaskuntza funtzionala ahalbidetzen duten baliabideak.
- Haurren zeregin aktiboa bultzatzen duten baliabideak.
- Komunikaziorako eta elkarekintzarako espazio aproposak sortzen dituzten baliabideak.

Nahiz eta D. Zentruaren esparrua 0-7 urte bitartekoa izan, badu adin honen mugetatik ateratzen den arlo bat, Hizkuntzaren didaktikarena, hain zuzen; arlo honen barruak erreziklaiaren inguruan bildutako hainbat material dago, baita Euskara-koordinatzailearekin elkarlanean sortutakoak eta bildutakoak ere.

«JAKINGARRIAK» aldizkarian eskaintzen diren materialak jasotzeko bide ezberdinak daude:

- Liburutegi-zerbitzua: Zerbitzu honen bidez liburuen mailegua egin liteke.
- Fotokopiak: Artikulu, dokumentu eta baliabide batzuk eskuratzeko bidea eskaintzen du.
- Baliabideen mailegua: Zerbitzu honen bidez zenbait material eskaintzen da:
 - Diapositibak
 - Bideoak
 - ...

D. Zentrua Eskoriatzako Irakasle Eskolan dago kokatuta. Asteartetan egoten da irekita arratsaldeko 5,30etatik 7ak arte.

Arduradunak:

Irakasle Eskola: Nerea Alzola

\ Mariam Bilbatua

Euskara-Teknikaria: Resu Abasolo

(Oharra: Komenigarria da etorri nahi dutenek aurrez abisatzea)

JAKINGARRIAK

14. ALE HONETAN AURKITUKO DITUZUN INFORMAZIOAK

«JAKINGARRIAK» honetan atal berri bat zabaldu da: **Eskoletako esperientziak**. Atal honetan eskoletan egiten ari diren esperientzia interesgarrien berri emango da.

Honekin batera orain arte «Jakingarriak» aldizkariak izan dituen 3 atalak mantentzen dira:

BERRI BIBLIOGRAFIKOAK: Atal honetan hiru material moten berri ematen da:

- Liburu berrien albisteak
- Argitaratu berri diren aldizkarietako artikuluko interesgarrien laburpena eta hauetariko batzuen itzulpenak.
- Aldizkarietako artikuluko eta liburuetakoko kapituluaren itzulpenak.

GAI MONOGRAFIKOA: Atal honetan alde batetik D. Zentruan gai baten inguruan dagoen informazioa eskaintzen da, beste aldetik gai honen inguruan ikastetxe ezberdinetan egin diren esperientziak azaltzen ahalegintzen gara.

BALIABIDEAK: Atal honetan D. Zentruak sortutako edo bildutako materialak eskaintzen dira.

Hauek dira 14. alean azaltzen diren eduki konkretuak:

- **Berri Bibliografikoak**
 - «Pedagogía de la escuela infantil»
 - «La escuela infantil de 0 a 6 años»
- **Artikulu berrien itzulpenak**
 - «Trastornos afectivos»
 - «Una manera de hacer ciencias en la escuela infantil»
 - «Qué valoramos hoy, mirando al mañana»
- **Gai monografikoa**
 - Psikomotrizitatea
- **Eskoletako esperientziak**
 - «Euskararen kanpainak Kurtzeberri eskolan»
 - «Liburutegia, Haurreskolan»
San Andres Eskola Publikoa (Arrasate)
- **Baliabideak**

LIBURU BERRIEN ALBISTEAK



VARIOS (1989)

«La escuela infantil de 0 a 6 años»

Anaya, Madrid.



VARIOS (1989)

«Pedagogía de la escuela infantil»

Santillana, Barcelona

Azkeneko bi urte hauetan Haurreskolari buruzko bi liburu orokor argitaratu dira; biek Haurreskolaren garrantzia azpimarratzen dute eta irakasleen prestakuntza eta Haurreskolaren funtzioa argitzea dute helburu nagusia. Gai orokorrek eta hezkuntzaren ario ezberdinak aztertzen dituzte liburu biek.

Esan dezakegu, liburu hauek kontsultaliburuak direla, arlo bat edo besteri buruzko informazioa jasotzeko.

Hona hemen material hauei buruzko datu batzu:

— Egileak, irakasle desberdinez osatutako ekipoak dira: «Anaya»ren liburuan, Irakasle Eskoletako irakasleak dira egileak, gehienak Haurreskolako sailean ari direnak. Santillana-koaren egileak ez daude liburuan bertan aurkeztuta nahiz eta batzuk oso ezagunak izan Unibertsitate mailan (De la Orden, Carretero, Sarramona...) eta UNEDeko irakasle bezala (Medina, Quintana...).

— Liburu bakoitzaren aurkibidea aurkeztuz, darabiltzaten gaiak eta haien arteko desberdintasunak ikus daitezke.

Anaya

La educación infantil
Anteced. históricos
El niño de 0-6 años
Modelo educat. Esc. Infantil
E.I. y familia
El profesor
Ed. para la salud
Actividad y descanso
Hábitos y rutinas
Ed. afectivo-social
Ed. psicomotriz (I-II)
Ed. proceso cognitivo
Conoc. del medio
Lenguaje oral
Aprend. lengua escrita
Ed. musical
Ed. visual y plástica
Activ. lúdica
La programación E.I.
Organización E.I.
Organización clase
Materiales E.I.
Integración niño con dificultades
De la E.I. a la Escuela obligatoria

Santillana

La educación infantil
Pasado y presente E.I.
Principios pedagógicos
Currículum Ed. I.
Acción educativo E.I.
Evaluación
Ed. sensorial
Ed. psicomotriz
Dimensión cognitiva
Dim. afectiva
Dim. social
Dim. comunicativa
Dim. moral
Educación. estética
Dimensión creativa

Nahiz eta kapituluaren egituraketa antzerakoa izan (sarrera, edukina, iradokizun praktikoko edo aplikapenak, bibliografia) orientabidea, orokorrean, ezberdina da:

«Anaya»k ateratako liburuaren kapituluak ez dute teorizazio-maila oso handia eta orientazio didaktikoa zaindu dute, Haurreskola eta irakasleengandik nahiko gertu jarriz. Anaya-ko ekipoak, batez ere Haurreskola hartzen du abiapuntu bezala: hezkuntzaren funtzioak, haurreskolaren ematen diren egoerak, arazoak eta landu behar diren arloak eta metodologia. Santillana-ko ekipoak, nahiz eta Haurreskolari buruzko hainbat kapitulu eskaini (historia, funtzioa...), abiapuntu bezala haurra orokorrean eta bere osotasunean hartu du eta bere garapenaren arloak aztertu ditu, oinarritzko teorizazio interesgarriak eskainiz eta eskolara gehiegi «jaitsi» gabe (nahiz eta salbuespenak egon).

Beraz, liburu biek orientabide desberdina dute eta agian osagarriak dira kontsultaliburu bezala erabiltzen badira.

ITZULPENAK

GENEVAY, E., LIPP, B., SCHOE-
NI, G.,

«Notes sur la lecture suivie comme
activité-cadre»,

Nothes Methodologiques, Français 7,
Département d'Instruction Publique
et des Cultes du Canton de Vaud,
1985.

Itzulpena: «Actividades posibles a partir
de la lectura de un libro»

Gaur egun eskola birplanteatzen ari da irakurketari orain arte emandako tratamendua. Eskola bakoitza bere liburutegia antolatzen saiatzen ari da, eta behe mailako haurrek lehen baino gehiago irakurtzen dute. Bestalde, urte askotan ontzat hartu izan diren praktika batzuk zalantzan jartzen hasiak dira.

Oraingo honetan eskaintzen dizuegun material honek gai honen inguruko zenbait gauza argitzen lagunduko dizu.

Material honek bi atal desberdin ditu:

- Batetik, sarrera teorikoa: bertan irakasleak aurki ditzake hainbatean bere buruari egin dizkion galderen erantzunak:
 - Zer da irakurtzea? Zer da irakurtzen jakitea?
 - Nola irakurri behar da? Ozenki, isilean, bakarrik, taldean...
 - OHoko goiko zikloan eta Ertaintan Literatura irakastea, aski al da literatur obra-zatiak irakurtzea?
 - Zein da benetazko liburua?
 - ...

— Bestetik, nola antolatu iharduera pedagogikoa liburu baten irakurketaren inguruan? Bigarren zati honetan hainbat ideia aurki ditzakezu, zuk aukeratutako liburuari aplikagarri:

- Nola jaso liburu baten lehen impresioa liburu irakurri gabe? (izenburua, irudiak, idazlearen ezaugarriak, kapituluaren izenak...)
- Nola aztertu liburu bat ikasleen motibazioak piztuta dirauela?
- Zeintzu dira egin daitezkeen estratolazioak liburu baten irakurketatik abiatuz?

Oharra: Interesetako balitzaizu Mariasun Landaren «ERRUSIKA» liburuarekin adibide bat egin dugu.

LAFON, C.; BERNARD, A.

«Un Voyage scolaire au bord de la mer»
L'École Maternelle 2,
Novembre 1984

Itzulpena: «Un viaje escolar al mar con niños de 5 años». (Haurreskolara zuzendua).

Artikulu honetan 5 urteko haurrekin egindako irteera programatu baten esperientzia azaltzen da:

Hezkuntz helburuak, irteera aurreko prestakuntza (orokorra, arloka), irteeran egindako ekintzak, natur eta giza ezagutza lantzeko hainbat proposamen eta bidai ondoren egindako azterketa eta ateratako konklusioak.

Haurreskolan edo Hasera Zikloan irteerak prestatzeko adibide lagungarria eskaintzen du artikuluak.

TERRADELLAS, M.R.,

«Les sorties al Parvulari i Cicle Inicial»
Butlleti dels mestres,
Barcelona, mar 1987

Itzulpena: «Las salidas en Parvulario y Ciclo Inicial».

Artikulu honek, irteeren bi arlo planteatzen ditu:

- Irteera batek eduki behar dituen ezaugarriak:

- Haurren eta inguruaren arteko elkarriketa bultzatzeko tresna izatea.
- Taldekoen arteko harremanen bultzatzailea izatea.
- Haurren beharretara egokitutako ekintza izatea.
- Proiektu pedagogikoaren helburuetarako lagungarri izatea.

- Irteera bat egiterakoan kontutan eduki

behar diren elementuak: prestakuntza, irteera bera, irteera ondorengo azterketa.

Artikulu teoriko honek marko lagungarria eskaintzen du.

(Haurreskola eta Hasiera Ziklora zuzendua)

ALDIZKARIAK

CUADERNOS DE PEDAGOGIA



CUADERNOS DE PEDAGOGIA 170, mayo 1989

Hezkuntzan, talde-lanak eta lankidetzak leku garrantzizkoa dute.

Ildo honetatik hona hemen artikulu batzuk: gelako haurren elkar-erlazioek eta ikaskuntz prozesuak duten lotura azpimarratzen dutenak.

Luque, A., «Dialogar, comprender, aprender», 8-12 orr.

Gelan ematen den elkarriketaren garrantzia ikaskuntza ulertzeko.

Luque, A., «Para saber más», 12-13 orr.

Bibliografía.

Luque, A., Garcia, I., «Una experiencia global y compartida»
Haurreskolako esperientzi bat: gelako antolaketa eta haurren autonomia eta ikaskuntza.

Rué, J., «El trabajo cooperativo por grupos», 18-20 orr.

Ikasleen elkar-lana, irakaslearen funtzioa, elkarriketak gelan, ... eta hainbat galderari erantzunak.

Guillén, C., «El manejo de la lengua por el juego», 36-38 orr.
Hizkuntzaren erabilpena bultzatzeko hainbat joku.

Lafarga, B., «El rincón de costura», 39-40 orr.

González, M.M., «La lectura de libros sin letras», 66-69 orr.
Ipuinaren hainbat posibilitate edo aukera.



CUADERNOS DE PEDAGOGIA 171, Junio 1989

Sau, V., «Sexo, género, educación. Un enfoque teórico», 8-12 orr.

Gai honetaz gogoeta historiko eta teoriko interesgarria.

Romero, I., «Igualdad de oportunidades», 14-18 orr.

M.E.C.aren markuaren deskribapena eta posibilitateak.

Colectivo, «Sexismo y práctica docente», 20-25 orr.

Hezkuntz maila ezberdinetan egindako ikerketa eta esperientziak.

Gastandi, P. Alonso, I., «Niñas y nuevas tecnologías», 26-28 orr.

Mañeru, A., Irazabal, C., «Para saber más», 29-34 orr.

Erakundeak eta bibliografía.


Artola, A., Dominguez, M.D., «Las mamás en la escuela», 36-37 orr.

Haurren gurasoen (amen) parte hartzea eskolako hainbat ekintzatan.

Peso, M.T., Vilarrubias, P., «La enseñanza y aprendizaje de la lengua escrita», 54-59 orr.

Moreno, M.C., «El ambiente y sus estímulos en el desarrollo de los niños», 60-62 orr.

Helduen eragina haurren garapenean.



CUADERNOS DE PEDAGOGIA 172, julio-agosto 1989

Globalizazioa, disziplinartekotasuna eta ezagutza integratua, sarri hezkuntz planteamendu berriztatzaileekin lotzen diren kontzeptuak dira. Mende hasierako pedagogorik klasikoenengandik modernoengana guztiak egin dituzte gogoetak irakaskuntz eta ikaskuntz prozesuan globalizazioak behar duen postuaz. Zer nolako eragina du haurtzaroko ezagutza eta afektuzko egiturari? Zer erizpide metodologikoaren inguruan ardazten da? Zein puntutaraino ote da estrategia berri bat eta, batez ere, zenbateraino jarrera ezberdin bat jakintzaren antolamendu eta transmisioaren aurrean? Irakaskuntzaren zein etapatan ote dute garrantzirik gehien globalizazioak edota disziplinartekotasunak?

Galdera irekien zerrenda honi erantzun ezberdinak ematen zaizkio, ohi baino luzeagoa den hileko gaia honen lehen zatiko lanetan, irakurleak ikusi ahal izango duenez. Horrela, diagnostiko orokorra egiten da globalizazioak kurikulumarekin duen erlazioaz, zenbait ezagutza-erlotako proiektuen sustrai eta funtsaz eta berauen muga eta ahalbideei buruz. Lehen lan-multzo honen amaieran bi artikulu daude eskol antolamenduak ikaskuntza globalizatuan duen eraginaz, eta ezagutzazko estrategiak bezala ezagutzen diren prozeduren izaeraz.

Bloke monografiko honen bigarren zatiak maila ezberdinetako proposamenak eta esperientziak ditu, ohizkoa den osagarri bibliografikoarekin.

Torres, J., «El curriculum globalizado o integrado y la enseñanza reflexiva», 8-13 orr.

Gimeno Sacristán, J., «Proyectos curriculares. Posibilidad al alcance de los profesores?», 14-18 orr.

Hernandez, F., «El lugar de los procedimientos», 20-23 orr.

Santos M.A., «¿Qué organización escolar?», 24-27 orr.

Torres, J., «Para saber más» (Bibliografía), 45-46 orr.

Solana, J. (Ministro Educación), «La Reforma del Sistema Educativo», 61-64 orr.



CUADERNOS DE PEDAGOGIA 173, Septiembre 1989

Segura, C., «Las manzanas: un trabajo de Globalización», 24-25 orr. Zentzumenen-heziketa, musika eta beste hainbat ikaskuntza sagararen bidez: esperientziaren azalpena.

García, M.C., González, R.M., «El hombre de musgo», 26-27 orr. «Bejar»eko Haurreskolan egindako esperientzia: herriaren historiaren bila...!

Diez, M.C., «Pisando tierra», 28-30 orr.

Lurraren hainbat posibilitate: adimenaren garapena, ludikoak, sentzorialak,...

Esteban, M.A., «Entender al niño deficiente visual», 43-45 orr. Itsuen integratuzko estrategiak.

CUADERNOS DE PEDAGOGIA 174, Octubre 1989

Alonso, M.A., «Feliz cumpleaños», 42-43 orr.

Urtebetetzeko jaiaren esperientziaren aurkezpena.

Grupo Bartulos, «El aula como espacio», 44-47 orr.

Gelako espazio-antolaketaren eragina eta pertsonen eta objektuen artean ematen den erlazioa.

Batzu, «La historia personal»

Hasiera zikloan «Haur bakoitzaren historia» gai globalizatuen adierazpena.



L'ÉCOLE MATERNELLE

L'ÉCOLE MATERNELLE 8, mai 1988

Moreau, M., «L'intégration d'enfants handicapés à l'école maternelle». 13-15 orr. Haur desberdinen integratuzko Haurreskolan.

• Motrizitatea

Sierra, L., «Grande motricité» (3 fitxa)

• Matematika

Anonimoa, «Relation d'ordre-Activité de rangement», 23-24 orr.

Anonimoa, «Relation: produit cartésien-tableau cartésien», 25-26 orr.

• **Esperientzi arloa**

Anonimoa, «L'ombre», 27-28 orr.

Anonimoa, «A partir du mannequin articulé: le corps, les articulations», 29-30 orr.

• **Dantza**

Daumont-Mattel, J., Le Nouvel, C., «Le galop», 43-44 orr.

Parent, Y., «Ecrire à l'école maternelle», 53-54 orr.

L'ECOLE MATERNELLE 9, Juin 1989

Gilbert, H., «Entretien avec Barth. L'apprentissage de l'abstraction», 5-10 orr.

Norberaren pentsakera konszienteki bideratzea, irakatsi eta ikasi egingen da.

• **Motrizitatea**

Sierra, L., «Grande motricité» (3 fitxa), 25-30 orr.

• **Matematika**

Anonimoa, «Construction et utilisation du calendrier. Constitution de la mémoire collective de la classe», 33-34 orr.

• **Esperientzi arloa**

Anonimoa, «Les os, le squelette», 35-36 orr.

Anonimoa, «Le corps, les postures, les articulations».

• **Gelako antolaketa**

Bruzeau, F., Netter, G., «Autour d'une reproduction d'art», 43-44 orr.

Galvan, J., «Une drôle de cuisine!», 45-46 orr.


• **Dantza**

Daumont, J., Le Nouvel, C., «Le tambour», 51-52 orr.

• **Art**

Bisseret, E., «L'espace», 55-56 orr.

INFANCIA



INFANCIA 48, maig-juny 1989

Ollé, M.A., «Llengua i comunicació no verbal», 4-6 orr.

Komunikazioan, elkar hobeto ulertzeko, hainbat elementu ezlinguistiko erabiltzen da...

Balaguer, Il, «Qualitat de l'educació a l'escola bressol», 9-11 orr.

Glasgowen Haurreskolaren inguruan egindako bileran Kataluñatik aurkeztutako ponentzia.

Fleury, Ch. Kherroubi, M., «La formació permanent dels professionals dels més petits», 12-15 orr.

Frantziako (Val-de-Marne) esperientziaren azalpena.

Astals, J., «La motivació i el reforc en l'adquisició d'hàbits», 17-21 orr.


Ohituren ikaskuntza haurreskolan.

Jubert, J., «Konrad Lorenz, l'et leg que parlava amb les aus.. i als educadors», 30-34 orr.

Lorenzen lanaren garrantzia haurren munduaren ezagutzan.

Miralpeix, M.A., «El pa i l'água a l'hora de menjar».

Ogia eta uraren garrantzia, haur txikiarentzat.



INFANCIA 49, juliol-agost 1989

Codina, M.T., «Qué valorem avui, amb vistes á dem ?, 5-10 orr. Hezkuntza eta eskola ez dira neutroak, nahiz eta akonfesionalak edo apolitikoak izan.. Eskolan, irakasleek balore batzuk transmititzen dituzte...

Itzulpena: ¿Qué valoramos hoy con vistas a mañana?

Anonimoa, «La llum», 11-14 orr.

Ilargia ezagutzen haurreskolan...ilargia da... bizia, zientzia, artea, sormena, fantasia...

Scopesi, A., «Qualitat de vida dels infants a l'escola bressol» 15-21 orr.

Haurren bizi-kalitatea haurreskolan (Genova'ko ikerketa baten gaia eta gogoetak).

Renom, V., Sancho, N., «Una manera de fer ciéncias a l'escola», 22-24 orr.

Errealitatearen ezagutza jaiotzarekin hasten da. Ikaskuntza hau bultzatzeko hainbat ekintza bideratu behar da Haurreskolan.

Itzulpena: «Una manera de hacer ciencias en la escuela»

Martínez, M.T., Gimeno, X., «Es pot estudiar l'esquelet hume al parvulari?, 28-30 orr.

Haurreskolan gorputza gaia lantzeko esperientzia zehatza

B.I.C.E., «La convenció sobre els drets de l'infant», 31-34 orr.

Tardos, A., «El llenguatge dels gestos en la comunicació preco», 37-40 orr.

Eguneroko ekintzetan helduen eta haurren artean ematen eta bultzatu behar den komunikazioa. Budapesteko Loczy Institutuan egindako gogoetak.

INFANCIA Y APRENDIZAJE

Infancia y Aprendizaje

INFANCIA Y APRENDIZAJE 46, 1989

Palacios, J., «Contextos de crianza y educación de los niños españoles menores de seis años», 83-116 orr.

Haurreskolaren historia Espainian, hainbat datu demografiko, haurrek jasotzen duten hezkuntza eta gai honetaz etorkizunari begira planteatzen diren ikerketak.

INFANCIA Y APRENDIZAJE 47, 1989

Sierra, J.M., «Resultados académicos y desarrollo cognitivo en un programa de inmersión dirigido a escolares de nivel socio-cultural bajo», 55-65 orr.

Artikulu honetan inmersio programen oinarri teorikoak eta Bartzelonako Carmel auzoan egindako ikerketa aurkezten dira.

PERSPECTIVA ESCOLAR



PERSPECTIVA ESCOLAR 134, abril 1989

Monografikoa: «Irakaslearen gaixotasunak»

Gai honen helburua zera da: irakasleak eduki ditzakeen gaixotasunak aztertzea eta haien lana hobeto ezagutzeko tresna bat eskaintzea.

Esteve, J.M. «Consequences del malestar docent sobre la personalitat dels professors», 3-10 orr.

Ferrando, M., «Les manifestacions psicossomàtiques funcionals», 11-16 orr.

Otero, A., «Trastorns afectius», 17-21 orr.

Artikulu honetan, «depresio» gaixotasuna aztertzen du autoreak.

Itzulpena: «Trastornos afectivos»

Matorrell, H., «Disfonies. Sistema fonatori: estructura i fonació. Trastorns de la fonació», 22-25 orr.

Escalas, F., «Mal d'esquena, postures, els peus», 26-28 orr.



PERSPECTIVA ESCOLAR 135, maig 1989

Rua, J., «Observar la classe», 13-16 orr.


«Gelaren behaketa», gela aztertze oinarritzko metodoa da. Artikuluak metodo hau deskribatzen du: helburuak, datu-bilketa, etab.



PERSPECTIVA ESCOLAR 136, juny 1989

Pujol, J., Roca, N., «Treballar per projectes a parvulari», 39-45 orr.

Proiektuak haureskolan: helburuak, lanaren etapak, metodologia.



PERSPECTIVA ESCOLAR 137, set. 1989

Casaelles, M., «Els rancons como a alternativa educativa», 37-41 orr.

Txokoak alternatiba bezala...

Itzulitako Artikuluak hauek dira:

Codina, M.T.: «Qué valoramos hoy con vistas al mañana», Infancia 49

Renom, V., Sancho, N.: «Una manera de hacer ciencias en la escuela», Infancia, 49

Otero, A.: «Trastornos afectivos», Perspectiva Escolar, 134.

HEZKUNTZ PRAKTIKA PSIKOMOTRIZA

Sarritan aipaturiko «haurren globalitate», «ikaskuntza globala», «garapen integrala», «emozionalitatea», eta berrartu egiten dugu geure planteamendu pedagogikoan, kontutan izanik berorien elkar-erlaziozko aldagai ugariak proposamen teoriko-praktiko koherentea egin eta kontutan hartzeko berorien eragina eskol esparruan.

Guretzat, faktore biologiko, gorporeal, psikologiko, afektibo, sozial, etab.en elkar-erlaziozko prozesu bati esker erazten da haurraren nortasuna, eta haurraren bizipen guztiek dute eragina elkar-erlazioen sistema global horren garape-

nean, eskola delarik erlazio horien erantzule. Horretarako, aukera batzuk egin beharrean dago eskola, haurraren bizitza zati berezietan banatzeko joera apurtu eta proposamen metodologiko koherentean (haurraren) lana bi mailatan sistematizatuz ikasgela \longleftrightarrow psikomotrizitate-gela.

Guk proposatzen dugun «Hezkuntz Praktika Psikomotriza»ren helburu nagusia, haurrarentzat seguritate-esparru bat sortzea da, esparru horretan ager dadin haurraren mugimenduzko adierazkortasun espontaneo beraren bilakaeran oinarritutako espazio-denborazko egituraketaz: sentimen-mugimenduzko-tik sinbolikora eta pentsamendu operati-boaren eraikuntzara.

«Hezkuntz Praktika Psikomotriza»k, gelaren metodologi mailan du eragina

eta bertan gauzatzen da, ezagutza eta aurkikuntzetara iristea ahalbidetzen diolarik haurrari, beronen bilakaera-unea eta heldutasuna kontutan izanda.

Heziketa helduak duen zeregina kuestionatzen du lan-metodologia honek, haurrari entzun eta beronekin benetako komunikazioa lortzera bideratua dagoelarik.

Proposamen honek, haurraren indibidualitate eta konkrezioaren funtzioan lan egiteaz gain, haurraren bizitzan elkartzen diren aldagai ezberdinak ere kontutan hartzen ditu, baita haurra partaide duten sistema ezberdinen (familiarren, eskolarraren, kulturalaren...) elkarrekintza edo interakzioak ere.

Polentinos Martinez, Juan Cruz
Herran Izagirre, Elena

Bibliografia:

AUCOUTURIER, B., DARRAULT, J., EMPINET, J.L., «La Práctica psicomotriz. Reeducación y terapia».

Ed. Científico-Médica, Barcelona.

Bi arazo handi aztertzen dira sakon liburu honetan. Lehenik, psikomotrizistaren prestakuntza hiru mailatan: teorikoa, pertsonala eta praktikoa, praktika psikomotrizaren analisi semiotikoa barne delarik. Eta bigarren, teknizitateari eskainitako saila, honen barruan sentimen-mugimenduzko atseginarean ezarpenean, produkzio agresi-boetan eta fantasmatisikoetan zentratzen direlarik.

HEMSING, W., «El miedo en los niños. Su sentido y recuperación». Kapelusuz, Buenos Aires.

Izuaren eta beldurraren kontzeptua matizatu ondoren, beldurretik babesteko formarik arruntenak azaltzen ditu eta egoera propioak zehazten ditu haurraren adinaren arabera.

Kapitulu batean zehar beldurra eta atsegina erlazionatzen ditu, itxuraz bateraezinak diren bi egoera, baina garapenerako funtsezkoak.

KAMII, C., «La autonomía como objetivo de la educación: implicaciones de la teoría de Piaget, Infancia y Aprendizaje 17, 1982.

Hezkuntzaren helburutzat autonomia, autonomia moral eta intelektual eta konstruktibismoa erlazionatzen dituen artikulua, eta helburu honek inplikatzeko duen hezkuntza-mota.

LAPIERRE, A., AUCOUTURIER, B., «Simbología del movimiento», Ed. Científico-médica, Barcelona, 1977.

Psikomotrizitatearen ikuspegi arrazionalistatik ikuspegi askoz irekiararako bilakaera. Heziketa biziaren proposamena.

NADEL, J., BEST, F., «La pedagogía de Henri Wallon hoy», Reforma de la Escuela, Barcelona, 1982

Estadioak, Psikopatologiako ekarpenak, keinua, imitazioa, adieraz-

kortasuna eta adierazpena, haurra mugitzen deneko ingurua,... kontutan izan beharreko elementuak hazkuntza aktiboaren oinarriak bilatzeko orduan.

PIAGET, J., «La formación del símbolo en el niño», Fondo de Cultura Económica, México, 1975

Hiru gai handi aztertzen dira hemen: lehenik imitazioaren eraketa; bigarren, jolasa haurraren jaiotzaz geroztik eta mintzaira agertzen den momentutik aurrerako bilakaera, eta hirugarren, ezagutzazko errepresentazioa.

REICH, Eva, «Infancia y prevención de la neurosis», en *Energía, carácter y sociedad*, vol. I., n.2, 1983

Hitzaldi baten transkribaketa, bertan izakeraren eraketa neurotikoa eragiten duten gizarte-kondizioak adierazten dira; eta autoerregulaketara hurbiltzen gaituzten ereduak ere ematen dira aditzera.

STAMBAK, Mira, «Tono y Psicomotricidad. El desarrollo psicomotor de la primera infancia» Pablo del Rio, Madrid 1989

Mugimenduaren garapen-etapen eta aldagai elkar-erlazionatuen azalpen eta deskribapena, anamnesiaren abiapuntua, diagnostikoa eta ondorengo lana.

UTRILLA, M., «¿Son los padres culpables? Narcea, Madrid.

Ikuspuntu berri bat gurasoengana hurbiltzeko: alderdi psikologikoak, erruduntasun-sentimendua, harremanak, etab.

WATZLAWICK y otros., «Teoría de la comunicación humana», Herder, Barcelona.

Komunikazioaren analisi berezia, baita beronetan parte hartzen duten elementuena ere: komunikazioa zertzen deneko giroen ikuspegi sistematikoa, zailtasunak, sintoma emergentea, etab.

Polentinos, Juan Cruz
Herran, Elena

BESTE HAINBAT ARTIKULU...

- ANGEL, C. (1987): «Condepte i contingut de la psicomotricitat» *Perspectiva escolar*, 118, 2-5 orr.
- ANGEL, C. (1979): «El descubrimiento del cuerpo en el niño de parvulario», *Reforma de la escuela*, 3, 19-21 orr.
- ANTON, M. (1985): «Treball de psicomotricitat al Cicle Inicial», *Guix*, 93, 39-41 orr.
- ANTON, M. (1978): «Com treballem la psicomotricitat al parvulari?», *Perspectiva escolar*, 28, 12-14 orr.
- ANTON, M. (1980): «La psicomotricidad en los primeros cursos de EGB.», *Reforma de la escuela*, 14, 19-20 orr.
- ANTON, M. (1980): «El trabajo corporal», *Reforma de la escuela*, 15, 22-23 orr.
- ANTON, M. (1980): «Importancia de la psicomotricidad en los primeros cursos de EGB», *Reforma de la escuela*, 17, 21-22 orr.
- ANTON, M.J. (1979): «Juegos populares», *Reforma de la escuela*, 5, 26-30 orr.
- BAENA, P. (1982): «Expresión corporal y desarrollo del niño preescolar», *Cuadernos de Pedagogía*, 95, 77-78 orr.
- BASEDAS, M. (1987): «La psicomotricitat de els primers anys de vida», *Perspectiva escolar*, 118, 6-9 orr.
- BENITO BALLEJO, J. (1985): «Tendències actuals de la psicomotricitat», *Guix*, 93, 5-8 orr.
- BENLAKHDAR, B. (1985): «A la découverte de l'autre et de son corps», *L'école maternelle*, 6, 1-6 orr.
- BLANCHET, A. (1987): «Collages. Apprentissage du schéma corporel», *L'école maternelle*, 4, 49-51 orr.
- CARRANZA, M. (1987): «La psicomotricitat a l'escola», *Perspectiva escolar*, 118, 10-13 orr.
- CASTRO, J. (1985): «La comunicació, base de la metodologia psicomotriu», *Guix*, 93, 15-18 orr.
- CLARABUCH, M.C. (1985): «Ejercices de psicomotricitat», *Guix* 88, 59-61 orr.
- CLEZIOU, M., FORICHON, M. (1989): «Grande motricité», *L'école Maternelle*, 6, 25-30 orr.
- COLOME, M. (1985): «Material per al desenvolupament motòric i psicomotòric», *Guix*, 93, 49-53 orr.
- COMSA, R. (1981): «El cuerpo como arma», *Cuadernos de Pedagogía*, 77, 42-43 orr.
- COMSA, R. (1982): «La experimentación sobre el propio cuerpo», *Cuadernos de Pedagogía*, 87, 34-36 orr.
- CONESA, R. (1982): «La experimentación sobre el propio cuerpo», *Cuadernos de Pedagogía*, 87, 34-36 orr.
- DIEZ, M.C. (1987): «Jugar con el cuerpo», *Cuadernos de Pedagogía*, 144, 50-52 orr.
- ESCUELA PROA (1980): «Psikomotricidad en EGB: trabajo de nociones matemáticas», *Reforma de la escuela*, 20, 7-9 orr.
- ESCUELA PROA (1980): «El desplazamiento corporal» *Reforma de la escuela*, 18, 4-6 orr.
- ESCUELA PROA (1980): «Espacio: la noción de lateralidad», *Reforma de la escuela*, 19, 10-13 orr.
- ESCUELA PROA (1980): «Psicomotricidad en EGB. Trabajo de nociones matemáticas» *Reforma de la escuela*, 20, 7-9 orr.
- FERNANDEZ, E. (1986): «El desplaçament autònom inicial», *Infancia*, 32, 33-36 orr.
- FORNER, A. (1985): «Educació psicomotriu, educació corporal», *Guix*, 93, 9-13 orr.
- GARCIA NUÑEZ, J.A. (1985): «Psicomotricitat i dificultats d'aprenentatge», *Guix*, 93, 23-26 orr.
- GILBERT, E. (1978): «La observación de la actividad corporal espontánea del niño», *Reforma de la escuela*, 2, 14-18 orr.
- LABERNNE, J. eta G. (1985): «Je prépare quelques séances chez le 2 a 5 ans», *L'école maternelle*, 0, 33-40 orr.
- LABERNNE, J. eta G. (1984): «Je prépare ma classe», *L'école maternelle*, 0, 33-40 orr.
- LLEIXA, T., CARRANZA, M. (1987): «L'educació motora dels 4 als 11 anys. Necessitats i objectius», *Perspectiva escolar*, 118, 14-16 orr.
- MARTINEZ, E. (1980): «Ejercicios globalizados de plástica y psicomotricidad en preescolar», *Cuadernos de Pedagogía*, 66, 45-47 orr.
- MIR, C. (1975): «Psicomotricidad en la escuela», *Cuadernos de Pedagogía*, 5, 29-31 orr.
- ODENA, P. (1976): «La psicomotricitat a la Llar d'infants», *Perspectiva escolar*, 7, 7-11 orr.
- PERRE, G. (1985): *L'enfant et la représentation de son corps l'émergence des sentiments: Avoir peur*, *L'école maternelle*, 6, 37-40 orr.
- POULAIN, D. (1984): «Au gymnase», *L'école maternelle*, 0, 57-62 orr.
- PUIGVERT, S. (1981): «Jocs ritmics a Parvulari», *Perspectiva escolar*, 53, 41-42 orr.
- RENAU, D. (1981): «Sensomotricitat i representació», *Perspectiva escolar*, 54, 22-23 orr.
- RODRIGUEZ M.J. (1984): «El trabajo psicomotor con bebés», *Cuadernos de Pedagogía*, 119, 73-76 orr.
- ROTA, J. (1987): «Aplicació terapèutica de la psicomotricitat», *Perspectiva escolar*, 118, 21-25 orr.
- SIERRA, L. (1989): «Grande motricité (3 fitxa)», *L'école maternelle*, 4, 25-30 orr.
- SIERRA, L. (1988): «Grande motricité (3 fitxa)», *L'école maternelle*, 1, 25-30 orr.
- SIERRA, L. (1988): «Grande motricité (3 fitxa)», *L'école maternelle*, 2, 25-30 orr.
- SIERRA, L. (1988): «Grande motricité (3 fitxa)», *L'école maternelle*, 3, 25-30 orr.
- SIERRA, L. (1989): «Grande motricité (3 fitxa)», *L'école maternelle*, 5, 25-30 orr.
- SIERRA, L. (1988): «Grande motricité (3 fitxa)», *L'école maternelle*, 7, 25-30 orr.
- SIERRA, L. (1989): «Grande motricité (3 fitxa)», *L'école maternelle*, 8, 17-22 orr.
- SIERRA, L. (1989): «Grande motricité», *L'école maternelle*, 9, 25-30 orr.
- SUGRAÑES, E. (1985): «Descoberta del propi cos», *Guix*, 93, 33-37 orr.
- VAYER, P. (1983): «Hauraren hezkuntza orokorrerako psikomotrizitatearen garrantzia azpimarratu duen hezitzailea», *Kimu*, 6, 30-31 orr.
- VIDAL, C., APARICIO, D. (1985): «Quan era a dalt estava molt content», *Guix*, 93, 27-31 orr.

EUSKERAREN KANPAINAK KURTZEBERRI ESKOLAN

Euskararen erabilera dela eta, oportoste guztietan, batez ere B Ereduko haurrek gure Hizkuntza erabiltzeko ohitura galtzen zutela eta, komenigarria ikusten genuen hiruhilabete bakoitzaren hasieran nolabait arlo hori indartzea.


Batez ere, kanpainen helburua horretan datza: HAURRENGAN EUSKARAZ HITZEGITEKO OHITURA SORTARAZI OPORRALDI OSTE GUZTIETAN.

Honela hiruhilabete bakoitzeko lehenengo aste edota hamabostaldian edukiak pixka bat ahaztu eta ohizkoak ez diren aktibitateak antolatzen ahalegintzen gara.

Baina aktibitate horiek baldintza batzuk betetzea beharrezkoa iruditzen zaigu, esate baterako:

- 1.- Euskararekin zerikusi zuzena izatea.
- 2.- Motibagarriak izatea.
- 3.- Ohizkoak ez izatea.
- 4.- Haurren partehartzea ezinbestekoa izatea.
- 5.- Ahal den neurrian antolakuntza haurrena izatea.
- 6.- Eredu ezberdinetako haurrak harremanetan jartzea.
- 7.- Gelatik kanpoko ekintzak izatea.
- 8.- Irakasle guztiak partehartzea.

Orain arte antolatuak izan diren kanpainen ekintza ugari egin ditugu. Hemen azalduko ditugunak gure ustez interesgarrienak edota ondorio atseginenak izan dituztenak dira:



- A.- Txapen banaketa, pegatinak egitea...
- B.- 2. etapako haurrek beste haur guztientzat jolasak antolatzea.
- D.- Klean, gelatan prestatutako antzerkien antzezpena.
- E.- Marino Lejarretaren bisita.
- F.- Euskararen erabileraren autokontrol fitxa.
- G.- Kaleetan hormairudiak banatzea.
- H.- Dendarientzat eginiko gutunak.
- I.- Euskara goraiatzaren duten abestiak ikastea.
- J.- Ipuin lehiaketaren antolaketa.
- K.- Eskola mailako «KORRIKA»ren antolatzea.
- L.- Olerki eta txiste kontaketa.
- M.- Kirol saioak.

Aktibitate guzti haueetatik lehen biak zehaztuko ditugu orainarteko kanpaina guztietan beraietaz baliatu garelako:

A.- TXAPEN BANAKETA EDO PEGATINEN EGITEA

Orain arte antolatu izan ditugun kanpainen txapa edota pegatina ez da falta izan. Oinarritzkoa izan da orain arte.

Hasierako kanpainen pegatina batzuk atera genituen inprentan haurrek zerbait motibagarria izatearren banatzeko.

Bigarren etapako A eta B eredu haurrak arduratu ziren beste haur guztiei pegatinak banatzeaz, baina berau eskuratzeko beharrezkoa zen 2. Etapako haurrek prestatutako galdera batzuei zuzen erantzutea. Galderak euskararekiko konpromiso bati baietz erantzutekoak ziren. Adibidez: Euskaraz hitz egiten duzu? Eta hitz egingo duzu?... Haurrek banaka banaka erantzun ondoren pegatina eskuratzun zuten.

Lan erreza badirudi ere, kontuan hartzen badugu A Ereduko haurrek antolatu zutela lana, beraietaz garrantzitsua izan zela ohartuko gara, nahitaez elka-



rrizketa bat mantendu behar izan zutelako beste hurrekin.

Lan erreza badirudi ere, kontuan hartzen badugu A Ereduko hurrek antolatu zutela lana, beraientzat garrantzitsua izan zela ohartuko gara, nahitaez elkar-rrizketa bat mantendu behar izan zutelako beste hurrekin

Bigarren kanpainarako eta progresio bat gordetzeko asmoz, txapak atera genituen.

Orainoa irakasleok arduratu ginen banatzeaz eta konpromisoa eskatzeaz.

Ondorengo kanpaina eta kurtso berrietan 1. Mailara sartzen diren hurrek eskuratzen dute txapa eta besteek badute-nez gero, era ezberdinetako pegatinak egiten dituzte guk modeloak emanez. Pegatina horietan euskara garrantzitsu bezala agertzen den esaldi ezberdinak asmatzen dituzte:

«Txunpatxun! Gu euskaldun!»
 «Niri euskaraz mesedez!»
 «Musika maestro! Euskaraz hobeto!»
 «Euskara plazara!»
 «Ni euskalduna naiz!»
 «Euskara trenean eta gu barruan!»
 «Euskal Herrian euskaraz!»
 «Kurtzebarri noa euskara ikastera!»
 «Eskolan eta kalean euskaraz!»
 «Euskaraz hitz egin hil ez dadin!»

Kanpainak irauten duen egunetan hurrek pegatina edo txapa aldean daramate.



B.- 2. ETAPAKO HAURREK BESTE GUZTIENTZAT JOLASAK ANTOLATZEN DITUZTE

Ekintza hau ere kanpaina gehienetan atera nahi izan dugu aurrera nagusienak

direnei protagonismoa eman nahian, eta azken kanpainan egin zuten lana benetan aipagarria iruditzen zaigulako zehaztu nahi dugu pixka bat (Momentu honetan Kurtzebarri Eskolako 2. Etapa B Ereduaz eta A Ereduko gela batez daukagu osatuta).

Txokoka antolatu zituzten jolasak, gutira 10 joku ezberdin zirelarik.



Txoko bakoitza 5 edo 6ren ardurapean zegoen. Garbi adierazita zeukaten hor- mirüdien edo marrazkien bidez zer jolas- mota zen.

Gainera jolas edo joku bakoitzak toki berezi bat zuen.

Hasieran hurrek «gela»ka jolas bat aukeratu zuten andereñoarekin; hura bukatu ondoren, atseginenak iruditzen zitzaizkien beste jolasak pasatu zituzten.

Azkenean gelaren banaketak kontutan izan gabe, nahi zuen jolasera hurbiltzen zen haur bakoitza; honela gela, eredu eta adin ezberdinetako hurrek elkarrekin jolastu zirelarik.

Benetan ondo pasatu genuen denok giro euskalduna sortu zelarik haur guztien artean.

Jolas hauez gain, 1. eta 2. mailako hurrek abesti-saiotxo bat eskaini ziguten, 3. mailakoek olerkiak, 4. mailakoek abestiak antzeztu zituzten eta 5. mailakoek antzerkitxo bat egin ziguten.

Guzti hau Kurtzebarri Eskolaren inguruetan izan zen, aurten (obrak direla eta) hiru tokitan kokaturik ditugun zikloak elkartuz.

Orain arte batez ere gelaka antolatu izan ditugu ekintzak. Hurrengo kanpainetarako B eta D Ereduetako hurrek elkarrekin prestatutako zerbait antolatu nahi dugu, «gelen» muga, pixka bat apurtuz.

EUSKARA DEPARTAMENTUA



LIBURUTEGIA HAURRESKOLAN

Arantza Barrutia San Andres eskola
 Mariam Bilbatua Irakasle Eskola
 Begoña Garmendia San Andres eskola
 Arantza Landa San Andres eskola

LIBURUTEGIA

Liburutegia gelan dagoen txoko bat da, haurrak taldeka txoko horretatik pasatzen direlarik.

Bertan material-mota ezberdinak daude:

- Salgai dauden ipuinak.
- Irakasleak ahozko hizkuntza lantzeko sortutakoak.
- Ipuinetatik abiatuz sortutako hizkuntz jolasak eta osatzeko fitxak.
- Inprimategia (5 urtetako haurren gelan).

Liburutegian, haurrek ekintza-mota ezberdinak burutzen dituzte:

- Liburuak ikusi.
- Talde osoan kontatutako ipuinak beren artean kontatu.
- Hizkuntz jolasekin jolastu.

Orain azalduko dugun ekintza, **LIBURUEN BEHAKETA**, aipatutako ekintzetan tartekatzen da.

Ekintza hau burutzeko irakasleak programatutako eta agindutako pausak jarraituko dituzte:

- 1.- Ekintzen aurkezpena. Nozio baten behaketa proposatzen zaie, hau da, guk agindutako zerbait liburuetan aurkitzea.
- 2.- Agindutakoa bilatzeko liburuak aztertzen dituzte haurrek.
- 3.- Behatutako nozioen inguruan elkarrikeria burutzen dute haurrek.
- 4.- Behatutako nozioen ahozko eta idatzizko adierazpena lantzeko ekintzak egiten dituzte: idatzi, margotu, jolastu.

Hauek dira ikasleei proposatzen zaizkien nozioak:

- 1.- Zein pertsonaia agertzen den ipuinetan
- 2.- Nolakoak diren pertsonaiak
- 3.- Non dauden
- 4.- Zertan ari diren
- 5.- Nola dauden.
- 6.- Denbora kontutan izanik sekuentzia ordenatu

San Andres Eskola Publikoa (Arrasate).

Azalduko dugun esperientzia H2 programatzeko esperimentatzen ari garen eremuan kokatu behar da.

Eredu honetan garrantzi handia du gelako egoera guztiek haurrekin komunikatzeko eta beraien hizkuntza aberasteko ematen diguten aukera hustiratu eta programatzeak.

Egunean zehar hiru antolaketa-mota nahasten ditugu:

- talde osoa
- talde txikia
- banaka

Egoera bakoitzean hiru ekintza posible definitu ditugu:

- Ekintza espontaneoak .- Haurrek espontaneoki proposatzen dituztenak.
- Ekintza naturalak .- Eskaintzen zaizkien materialez baliatuz haurrek egiten dituztenak.
- Ekintza probokatuak .- Irakaslearen pautak jarraituz burutu behar dituztenak.

Jarraian azalduko dugun esperientzia konkretua ekintza antolaketaren marko honetan kokatu behar da.





Nozio-multzo bakoitzaren inguruan programatu behar dira:

- Behaketarako proposatuko zaizkien ekintza motak.
- Landuko diren nozioak.
- Behatutako nozioen adierazpena lantzeko ekintzak.

Hona hemen hauetariko baten programazioa:

Nolakoak diren pertsonaiak

BEHAKETARAKO PROPOSATUKO ZAIZKIEN EKINTZA MOTAK.

- Ipuinetan agertzen diren pertsonaiak nolakoak diren behatu.
- Ipuinetan agertzen diren pertsonaien aurkakoak aurkitu.

• ...

LANDUKO DIREN NOZIOAK

- Nolakotasunezko nozioak.
 - Handia - txikia
 - Polita - itsusia
 - Lodia - argala
 - Altu - baju
 - Zaharra - gaztea
 - Zikina - garbia
 - Onak - txarrak

- Nozioen adierazpena lantzeko ekintzak

AURKAKOEN JOLASA 1

Materiala: kartoiak aurkako marrazkiekin (handia-txikia, lodia-argala...).

Nola: Marrazkiak ahozpezt jarriko dira, hurrek txandaka bi karta hartuko dituzte, aurkako bikotea osatzen badute egingo dituzte, bestela mahai gainean utzi behar dituzte.

Kartak hartzerakoan marrazkian agertzen dena esan behar dute.

AURKAKOEN JOLASA 2

Materiala: bi taula laukidun, goian ezker-eskuin zenbakiak jartzen dira, eta ezkerrean goitik behera hizkiak.

Taula batean, marrazkiak dauzkaten kartoiak jartzen dira ahozpezt, eta besteen izenak dauzkatenak.

Hurrek banan-banan edo taldeka, taula bakoitzeko kartoi txiki bat eskatuko dute, hizkiak eta zenbakiak erabiliz (a1 eta b3, adibidez); aukeratu dituztenek bikotea osatzen badute jaso egingo dituzte, bestela berriro taula gainean utziko dute.

DOMINOA

Aurkako nozioekin domino bat osatu.

Lau urtekoentzat kontzeptuak.

Bost urtekoentzat kontzeptuak eta hitzak.

NOR DA NOR?

Irakasleak pertsonaiak deskribatuko ditu eta pertsonaia askoren artean zein den deskribatua izan dena aurkitu behar dute hurrek.

ASMAKIZUNAK

Ondorioak

Azaldu dugun ekintza baloratzeko esan dezakegu:

- Ekintzaren antolaketak (talde txikia, materialak, testuingurua) haurren beren arteko eta irakasleekiko interakzioa errazten duela eta ondorioz ikuspuntu ezberdinak elkartrukatzea ahalbidetzen duela.
- Proposatzen zaizkien materialen bidez hurrek aukera dute testu-esanahiaz hipotesiak botatzeko baita testuen arteko konparaketak egiteko eta beraiek egin dituzten hipotesiak egiaztatzeko ere.
- Txikiekin erabilitako materialek nozioen esanahia jaso duten ala ez ikusteko aukera ematen dute eta baita beraien adierazpena lantzeko ere.
- Ekintza honek umeek beren kabuz egiten duten liburuen behaketa aberasten duela konturatu gara.

Bukatzeo, hasieran esan dugun bezala, ekintza hau liburutegian eta ipuinen inguruan egiten diren ekintzen artean beste ekintza bat gehiago baino ez da eta berak bakarrik ez ditu jasotzen ipuinen inguruan landu behar diren beste eduki linguistiko zein afektiboak.

1.- BAILARAKO HERRIEN DIAPOSITIBAK

Eskaintzen diren bildumak inguruko herrieta-koak dira eta adin desberdinetan erabiltzekoak izan daitezke. Bertan mendi, erreka, lantegi, kale, plaza, etxe... e.a. agertzen dira. Honekin batera herri hauetako idatzizko bildumak ere badira.

Hauek dira prestatuta daudenak:

ARRASATE: 83 diapositiba

ARRASATE GAUEZ: diapositibak eta grabazioa

ARETXABALETAKO: 44 diapositiba

GATZAGA: diapositibak eta bideoa

Egileak: Eskoriatzako Irakasle Eskolako Irakasleak

PITIREN ABENTURAK (HARRESIA, BASOA, LANDA)


GIDA DIDAKTIKOA

«Pitiren abenturak» hiru atalez ostutako pelikula saila da. O.H.O.ko, bereziki, bostgarren eta seigarren mailako neskatila-mutikoei zuzendua, laugarren, zazpigarren eta zortzigarren maila erabiltzeko ere bidezko ikusten delarik.


Sailaren helburuak honako hauek dira:

- Ikasleak motibatu ingurunearen behaketarako: harresia, basoa eta landa.
- Ezagutarazi erabili beharreko zenbait lan-teknika eta material.
- Fitxak eman, atera daitezkeen hipotesiak aztertu ondoren lan-programa bat burutzeko.
- Metodo zientifikoaren erabileraz orientabideak eman.

Bideoan zehar, Piti pantpinak, proposatzen diren lanen arteko bitartekotza egiten du.



GIDA DIDAKTIKOA



DOKUMENTAZIO ZENTRUA (0-7urte)

IRAKASLE ESKOLA

Escuela Unibersitaria del profesorado. Tel. 790440

ESKORIATZA (Gipuzkoa)